



OLATZ GARAMENDI LANDA,
GOBERNANTZA PUBLIKO ETA
AUTOGOBERNU SAILEKO
SAILBURUAK ETA EUSKO
JAURLARITZAKO IDAZKARIAK

OLATZ GARAMENDI LANDA,
CONSEJERA DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO Y
SECRETARIA DEL GOBIERNO VASCO

EGIAZTATZEN DUT:

Eusko Jaurlaritzak, 2021eko otsailaren 23an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

ERABAKIA, EUSKADIKO 2030erako ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANA ONARTZEN DUENA. (2021/00130 ESP.) (A/20210021)

Zientziak, teknologiak eta berrikuntzak eginkizun erabakigarria dute hazkunde ekonomikoaren eta gizarte-ongizatearen eragile eta kalitatezko enpleguaren sortzaile gisa, eta, horregatik, leku garrantzitsua dute herrialde eta eskualde aurreratuen agenda politikoan. Giza garapenaren eta hazkunde iraunkorraren bidean aurrera egiteko lagungarriak izan daitezkeenez, gero eta gehiagotan ageri dira politika publiko guztietan, eta, bereziki, izaera ekonomiko eta sozialeko politiketan.

"Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Plan" berria (aurrerantzean, ZTBP 2030) hasi berri den hamarkadarako Euskadi ikerketaren eta berrikuntzaren alde egin duen apustu estrategikoa da. Planak Euskadi 2030ean berrikuntzan aurreratuen dauden Europako eskualdeen artean kokatzea proposatzen du. Helburua da bizi-maila eta enpleguaren kalitatea hobetzea. Estrategia partekatu horretan erakunde publikoek, enpresek, unibertsitateek, ikerketa-zentroek, teknologia-zentroek eta eragile sozioekonomikoek parte hartzen dute.

CERTIFICO:

Que el Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 23 de febrero de 2021 adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

ACUERDO POR LA QUE SE APRUEBA EL PLAN DE CIENCIA, TECNOLOGÍA E INNOVACIÓN DE EUSKADI 2030. (EXP. 2021/00130) (A/20210021)

La ciencia, la tecnología y la innovación tienen reconocido un papel decisivo como motores de crecimiento económico y de bienestar social y generadores de empleo de calidad, ocupando por ello un lugar preferente en la agenda política de los países y regiones más avanzadas. El potencial de su contribución para avanzar hacia una senda de desarrollo humano y crecimiento sostenible las convierte en elementos cada vez más presentes en toda política pública y, en especial, las de carácter económico y social.

El nuevo "Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación Euskadi 2030" (en adelante PCTI 2030), representa la apuesta estratégica de Euskadi por la Investigación y la Innovación para esta década recién comenzada. El Plan propone situar Euskadi entre las regiones europeas más avanzadas en innovación en 2030. El objetivo es mejorar el nivel de vida y la calidad del empleo. Se trata ésta de una estrategia compartida en la que participan las instituciones públicas, las empresas, las universidades, los centros de investigación, los centros tecnológicos y los agentes socioeconómicos.





ZTBP 2030 partaidetza- eta lankidetzaprozesu baten emaitza da, eta gizarte zibileko hainbat erakunderen eta eragileren ekarpenak jaso ditu, kontuan hartuta zientzia, teknologia eta berrikuntza bultzatzea eta sustatzea zeharkako prozesua dela, bizitza ekonomiko eta sozialaren hainbat alderditan eragiten duena, eta, beraz, eskura dauden gaitasun eta sentsibilitate guztiak eskatzen dituena. Plana egiteko eta kontrastatzeko prozesuan, guztira, 200 erakundek eta 300 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte.

ZTBP 2030 Euskadi Basque Country 2030 Agendaren parte da, eta bertan jasotzen da herrialdeak Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin duen konpromisoa. Plana, aldi berean, nazioarteko eta tokiko hainbat erreferentzian oinarritzen da eta horiekin lerrokatuta dago: Horizonte Europa Esparru Programa, Europa Digitala Programa, Europako Itun Berdea, Next Generation EU Programa eta Euskadin Ekonomia Suspertzeko eta Enplegua Sustatzeko Bepiztu Programa 2020-2024. Osasun-pandemiak eragindako egungo krisiaren testuinguruan, egoera horretatik lehenago irteteko aukera ikusten da, ikerketaren, garapen teknologikoaren eta berrikuntzaren aldeko apustu irmoa eginez.

2030erako ZTBPK oinarri estrategiko gisa ezartzen ditu bikaintasun zientifikoa, lidergo teknologiko industrial eta berrikuntza irekia, bai eta talentua ere, arkitektura estrategikoaren erdigune gisa. Aurrerako oinarriak hedatzeko, lau helburu operatibo nagusi zehaztu dira: 1) "emaitzarako orientazioa"; 2) "berrikuntzaren garapena, batez ere ETEen artean"; 3) "Euskal I+G+b nazioartekotzea" eta 4) "talentu zientifiko-teknologikoa sustatzea, batez ere emakumeen artean". Helburu bakoitzak adierazle eta jomuga batzuk ditu, plana denboran zehar monitorizatzen eta ebaluatzen lagunduko dutenak. Planak aurreko ZTBPN definitutako "RIS3 Euskadi" espezializazio adimenduneko estrategia aurreratzen eta ardatzen du, eta berrikuntza gisa ezartzen du "zeharkako ekimen traktoreak" garatzea, 7 RIS3 arloen arteko elkarlana sustatzeko dutenak (3 lehentasun estrategiko eta 4 aukera-eremu). Gainera, ezarritako helburuak eta xedeak lortzeko funtsezkoak izango diren "oinarriko teknologien" mapa bat zehaztu da.

El PCTI 2030 es fruto de un proceso participativo y colaborativo, que ha contado con las aportaciones de diferentes instituciones y agentes de la sociedad civil, en la consideración de que el impulso y la promoción de la ciencia, la tecnología y la innovación supone un proceso transversal que incide en diversos aspectos de la vida económica y social, por lo que requiere de todas las capacidades y sensibilidades disponibles. En el proceso de elaboración y contraste del Plan han participado, en total, más de 200 entidades y 300 personas.

El PCTI 2030 forma parte de la Agenda Euskadi Basque Country 2030, que recoge el compromiso del país con los Objetivos de Desarrollo Sostenible de Naciones Unidas. El Plan se inspira y está alineado a su vez con diferentes referencias internacionales y locales: el Programa Marco Horizonte Europa, el Programa Europa Digital, el Pacto Verde Europeo, el Programa Next Generation EU y el Programa Bepiztu para la Reactivación Económica y el Empleo en Euskadi 2020-2024. En el contexto de crisis actual originada por la pandemia sanitaria, se vislumbra una oportunidad para salir antes de esta, apostando decididamente por la investigación, el desarrollo tecnológico y la innovación.

El PCTI 2030 establece como pilares estratégicos la excelencia científica, el liderazgo tecnológico industrial y la innovación abierta, además del talento como núcleo central de la arquitectura estratégica. Para desplegar los pilares anteriores se definen cuatro grandes objetivos operativos: 1) "Orientación a Resultados"; 2) "Desarrollo de la innovación, especialmente entre las Pymes"; 3) "Internacionalización de la I+D+i vasca" y 4) "Promoción del talento científico-tecnológico, especialmente entre las mujeres". Cada uno de los objetivos incluye una serie de indicadores y metas, que ayudarán a la monitorización y evaluación del Plan a lo largo del tiempo. El Plan evoluciona y focaliza la estrategia de especialización inteligente "RIS3 Euskadi" definida en el PCTI anterior, estableciendo como novedad el desarrollo de "Iniciativas Tractoras Transversales" que fomentarán el trabajo colaborativo entre las 7 áreas RIS3 (3 prioridades estratégicas y 4 territorios de oportunidad). Se define además un mapa de "Tecnologías base" que serán fundamentales para conseguir los objetivos y metas marcados.



"Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Plan" berriak euskal gizarteak etorkizun hobea lortzeko duen konpromisoa islatzen eta irudikatzen du. Zientzia, teknologia eta berrikuntza sustatzea da apustua, Euskadi digitalago, berdeago eta inklusiboago baterako trantsizioa bizkortzeko, XII. Legegintzaldiko Gobernu Planean ezarritako helburuekin ere bat etorritz.

Ondorioz, Lehendakariak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak, eztabaidatu ondoren, honako erabaki hau hartu du:

AKORDIOA

Lehena.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Plana onartzea; erabaki honen eranskinean jaso da plan hori.

Bigarrena.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Plana Eusko Legebiltzarrera bidaltzea, jakinaren gainean egon dadin.

Hirugarrena.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Planaren jarraipena eta ebaluazioa Planean bertan ezarritakoaren arabera egingo dira, "7.3 monitorizazioa eta ebaluazioa" atalean. Horretarako, ezarritako estrategiaren garapenaren urteko ebaluazioa egingo da, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemaren bi urtez behingo ebaluazioarekin batera. Era berean, Planaren azken ebaluazioa egingo da, hurrengo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana egin aurretik.

Laugarrena.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Planaren tarteko berrikuspena 2024an eta 2027an egingo da, planaren 2023ra eta 2026ra arteko garapena sakon ebaluatu ondoren. Planaren tarteko eta amaierako ebaluazio horiek, bai eta berrikuspenak ere, hala badagokio, Gobernu Kontseilura eta Eusko Legebiltzarrera bidaliko dira, jakinaren gainean egon daitezzen.

El nuevo "Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación Euskadi 2030" refleja y representa el compromiso de la sociedad vasca en pos de un futuro mejor. La apuesta es impulsar la ciencia, la tecnología y la innovación para acelerar la transición hacia una Euskadi más digital, más verde y más inclusiva, en línea también con los objetivos establecidos en el Plan de Gobierno de la XII Legislatura.

En su virtud, a propuesta del Lehendakari, el Consejo de Gobierno, previa deliberación, adopta el siguiente

ACUERDO

Primero.- Aprobar el Plan de Ciencia Tecnología e Innovación Euskadi 2030, que figura como Anexo al presente Acuerdo.

Segundo.- Remitir al Parlamento Vasco el Plan de Ciencia Tecnología e Innovación Euskadi 2030 para su conocimiento.

Tercero.- El seguimiento y evaluación del Plan de Ciencia Tecnología e Innovación Euskadi 2030, se llevarán a cabo de conformidad con lo establecido en el propio Plan, en su apartado "7.3 Monitorización y evaluación", y consistirán en una evaluación anual del desarrollo de la estrategia establecida, acompañada de una evaluación bienal del Sistema Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación. Asimismo, se realizará una evaluación final del Plan, que precederá a la elaboración del siguiente Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación.

Cuarto.- La revisión intermedia del Plan de Ciencia Tecnología e Innovación Euskadi 2030 se realizará en 2024 y 2027, tras la evaluación previa en profundidad de su desarrollo hasta 2023 y 2026. Estas evaluaciones intermedias y final del Plan, así como las revisiones, en su caso, se remitirán para su conocimiento al Consejo de Gobierno y al Parlamento Vasco.

ERABAKIAREN ERANSKINA:

ANEXO AL ACUERDO:

**Zientzia, Teknologia eta
Berrikuntzarako Plana EUSKADI 2030**

**Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación
EUSKADI 2030**

Eta horrela jasota gera dadin eta izan beharreko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut, Vitoria-Gasteizen, sinadura digitalaren egunean.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación, en Vitoria-Gasteiz, en la fecha de su firma digital.